

2023-III-15

PENTSIOEN ERREFORMAK MURRIZKETAK DAKARTZA



www.ela.eus

ELA

EUSKAL SINDIKATUA

PENTSIOEN ERREFORMAK MURRIZKETAK DAKARTZA

Espainiako Gobernuak pentsioen erreforma adostu du Bruselarekin, 2011ko erreforman onartutako murrizketak sendotzeko. Besteak beste, erretiro adina 67 urtera atzeratu zuen erreforma horrek, eta pentsio berrien zenbatekoa % 5 murriztu zuen (zenbateko hori kalkulatzeko kontuan hartzen zen urte kopurua 15etik 25era igaro baitzen).

Beste batzuetan bezala, Gobernuak Errege Dekretu bat onartu nahi du, eta horri buruz adostutako testua ez da ezagutzera eman (ez PSOEek eta Unidas Podemosek hitzartutakoa, ez Europako Batzordearekin adostutakoa, ezta Elkarrizketa Sozialerako Mahaira eraman dena ere). Horren ordez, herritarrak propaganda kanpaina interesatu baten mende jartzen dira, erreformaren bertsio partziala ematen da, murrizketarik ez dagoela argudiatuz. Hala ere, gertatu diren filtrazioek adierazten dute hori ez dela egia.

Dokumentu honetan, azken testua ezagutu arte, erreforma honen elementu nagusiak jasoko ditugu:

1. 50 URTEK BEHERAKOEN PENTSIOAK MURRIZTEN DIRA

Beste urrats bat eman da pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen den urte kopurua handitzean, aldi iragankor baten ondoren, epea azken 29 urteetako izango da, 24 hilabete txarrenak kanpoan utziz. Gaur egungo 25 urteen aukera ez da 2040an egongo.

Aldaketa horrekin, pentsioen murriztea onartu da, eta belaunaldi berriek, prekarizatuenak jasango dute.

Neurri hau denboran azteratzeak ez du esan nahi murrizketarik ez dagoenik. Egon, badaude.

2. PENTSIOEN ETA KOTIZAZIOEN ARTEKO ERLAZIOAN SAKONTZEN DA, PENTSIOAK ZERGEKIN FINANTZATZEKO AUKERA ALDE BATERA UTZITA

Erreformak hainbat neurri proposatzen ditu Gizarte Segurantzaren diru sarrerak handitzeko (EIEren kotizazioak % 0,6tik % 1,2ra igotzea; gehieneko kotizazio oinarriak urtero KPIa baino % 1,2 gehiago igotzea; elkartasun kuota bat ezartzea, diru-sarrerak gehieneko oinarrietatik gora dituzten pertsonen gizarte kotizazioak diferentzia horren % 6ra iristea dakarrena).

ELAren ustez, beharrezkoa da gizarte kotizazioen topeetan aurrera egitea, baina argi dago hasitako bidea oso motz geratzen dela.

Bestalde, erreformak muga bat ezartzen dio pentsioen gastuari (diru sarrerak handitzeko neurri horiekin lotuta, gainera), eta berebiziko garrantzia ematen dio AIREFi (Erantzukizun Fiskaleko Agintaritzaren Independentea) egoera aztertzeke eta gastuaren muga hori betetzeko beharrezko neurriak zehazteko orduan.

ELA oso kritikoa agertu da AIREFekin eta horrelako erakunde independenteekin, horiek baitira austeritate politiken ezarpenaren aitzindari. AIREFen web orriaren arabera, administrazio publikoek Konstituzioaren 135. artikuluan aurreikusitako aurrekontu egonkortasunaren bermatzea du helburu,

aurrekontu zikloaren ebaluazio jarraituaren, zorpetze publikoaren eta aurreikuspen ekonomikoen azterketaren bidez.

Adostutakoaren arabera, AIREFek, 2025eko martxotik aurrera, eta 3 urtean behin, pentsioen gastu muga errespetatzen ari den aztertuko du, eta betetzen ez den kasurako neurriak proposatuko ditu. Horrela, ontzat ematen da pentsioen sistema publikoaren aurkakoa den mekanismo argi bat da.

Pentsioetako gastuaren eta gizarte kotizazioen ondoriozko diru sarreren arteko lotura zuzena ezartzeak, Toledoko Itunean eta Estatuko Elkarrizketa Sozialerako Mahaietan markatzen ari diren indar ideietako batean sakontzea da, hau da, kotizazioen ondoriozko diru sarrerak pentsioak ordaintzeko iristen ez badira, murrizketa gehiago ezarri.

Hego Euskal Herriko biztanleen % 23 pentsiodunak dira. Eta horretarako aberastasunaren % 13 baino ez da erabiltzen pentsioen bidez. Izan ere, pentsiodunen zati handi batek pentsio baxua jasotzen du, pobrezia mugaren azpitik dagoena. ELAren ustez, pentsioak ordaintzera bideratutako aberastasunaren zatia nabarmen handitu behar da, eta hori batez ere zergen bidez finantzatu behar da. Horri uko egiteak pentsioen gastua gero eta pentsiodun gehiagoren testuinguruan mugatzeko logika onartzea dakar, eta hori ezin da egin kolektibo horren pobretze politiketan sakonduz baino ezin da egin.

3. GUTXIENKO PENTSIOAK OSO GUTXI HAZTEN DIRA

Pentsiodunen mugimenduak eztabaidaren erdigunean jarri du gutxieneko pentsioa nabarmen handitzeko beharra (1.080 euro bere garaian, eta zenbateko hori KPlarekin eguneratuta 1.260 eurora iritsi beharko litzateke).

Bada, akordioak gutxieneko pentsioen zenbatekoa hobetzea dakar, baina oso txikia da. Gogoan izan behar da hainbat pentsio mota daudela, eta gutxieneko pentsioen hainbat kasu. Nolanahi ere, Gobernuak planteatutako neurriaren aplikazioak gutxieneko pentsioak kopuru duinetatik oso urrun utziko lituzke. Adibidez, ezkontiderik gabeko 65 urtetik gorako pertsonen erretiro pentsioen zenbatekoa, 4 urtetan eta egoera baliokideetan, hilean 783 eurotik 833 eurora igaroko litzateke.

4. GENERO ARRAKALAK BERE HORRETAN JARRAITZEN DU

Emakumeek gizonek baino pentsio nabarmen txikiagoa jasotzen dute. Adibidez, emakumeen erretiro pentsio berrien zenbatekoa 1.403 eurokoa da EAEn, eta 1.177koa Nafarroan, 1.891 eta 1.693 eurokoa gizonezkoetan, hurrenez hurren.

Genero arrakalaren izenpean proposaturiko neurriek ez dute ia aldaketarik suposatzen egungo egoerarekiko.

5. 2011KO ERREFORMAREN MURRIZKETAK MANTENTZEN DIRA

ELAk, beste erakunde sozial eta sindikal batzuekin batera, 2011n onartutako murrizketa neurriak indargabetzeko eskatu du, eta greba orokor batekin erantzun genion. Hala, 65 urtera itzultzea

eskatzen dugu erretiro adin gisa, 15 urte berriro kontuan hartzea pentsioa kalkulatzeko edo erretiro aurreratua edo txanda kontratuaren murrizketak ezabatzea.

Gai horietako bat ere ez da aldatzen akordioan. Halaber, beste urrats bat ere ematen da, erretiro pentsioa zenbatzeko epea 25 urtetik 29ra igaro baita. Eta sei hilabeteko epean erretiro partzialaren erreforma bat iragartzen da.

6. EUROPAR BATASUNAREKIKO BORROKA PENTSIOAK HOBETZEKO EZ DA PLANTEATU

Egia da 2021ean Europako Funtsak jasotzearen truke Europar Batasunarekin lortutako akordioa ez dela guztiz gauzatu, eta hori albiste ona da.

Bizi dugun krisi globalaren testuingurua aukera bat zen Europar Batasunak bultzatutako murrizketen ereduari aurre egiteko. Sanchezen gobernuak ez da adostutakoa partzialki ez betetzeaz harago joan (elkarrizketa soziala ez errespetatzea, Iraunkortasun Faktorea hain txarra ez den MEI batekin ordezkatzeko, pentsio berrien murrizketak atzeratzea, etab.). Borondate politikoa baino ez zuen behar beste politika batzuk egin daitezkeela frogatu ahal izateko.

7. EGINKIZUN GARRANTZITSUA BAINA ESKASA IZAN DUEN EZKER POLITIKOA

ELAk gure lurraldeeremuko indar politikoei eta Unidas Podemosi murrizketetan aurrera egitearen aurka agertzeko interpelazioa egin zien. Argi dago erreforma okerragoa izango zela Unidas Podemos eta EH Bildu Escrivá ministroak Bruselarekin adostutako guztia aplikatzeko asmoaren aurka agertu ez balira, eta, bereziki, une honetan pentsioa kalkulatzeko kontuan hartzen den urte kopurua 30 urtera handitzearen aurka agertu ez balira.

Hala ere, berri txarra litzateke horrelako erreforma bat berrestea, murrizketak onartzen dituen eta etorkizunean murrizketa berriak egoteko esparrua ezartzen duena, indar progresisten oniritziarekin egitea. Horregatik, ELAk dei egiten die indar horiei erreformaren aurka bozkatzeko, baldin eta erreformaren elementu atzerakoietan oinarritzen bada eta 2011ko erreformaren murrizketetan atzera egiten ez bada.

8. APIRILAREN 4AN MOBILIZATUKO GARA

Testuinguru horretan, ELAk babestu egin du Pentsiodunen Mugimenduak martxoaren 18an egindako manifestazioa. Gainera, ados gaude Mugimendu honek pentsio erreformaren inguruan egin duen balorazio kritikoarekin, eta beharrezkotzat jotzen dugu erreforma horri erantzun bat ematea.

Illo horretan, ELAk hainbat jarduera egingo ditu, besteak beste, apirilaren 4an Bilbon eta Iruñean mobilizazioak egingo ditugu, erreforma arbuizatzeko eta duintasunez bizi ahal izateko diru sarrera nahikoak bermatuko dituen pentsio publikoen sistema bat eskatzeko.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA